

PRENTSA OHARRA

2026eko otsailaren 26an, Donostian

‘Nafar anitz’ saioa estreinatuko da martxoan Hamaikan

Datorren martxoaren 3an, 22:00etan, *Nafar anitz* saioa estreinatuko da Hamaikan. Nafarroako pertsona ezagunen bizitzan murgildu eta aurpegi ezagunaren atzean dagoen pertsona gertutasun eta naturaltasunez erakustea helburu duen programa berria.

Yasmine Khri Maansri aurkezleak gidatuta, atal bakoitzean protagonista baten ingurune pertsonala erakutsiko da saioan: bere etxea, herria eta ohiturak ezagutzeko aukera izango da. Ikusleari ohiko elkarrizketa eta agerpen publikoetatik harago doan begirada eskaintzea da xedea.

Nafar anitz, asteartero 22:00etan izango da ikusgai, martxoaren 3tik aurrera Hamaikan. LTD bidez eta kable bitartez ikusteaz gain, www.hamaika.eus webgunean ere izango da eskuragarri, baita Android TBrako aplikazio bidez ere.